



Aurkibidea

Sarrera	4
Enplegu Plana	6
Helburuak eta estrategia	7
Ekintzen Plana eta Proiektuak	9
2013ko Enplegu Plana	12
2013ko proiektuak	13
2013ko Enplegu Planaren agente-koadroa	39
2013ko Enplegu Plana zifratan	43

SARRERA

Oarsoaldea **Errenteria, Lezo, Pasaia eta Oiartzungo udalerriek osatutako Eskualdea Garatzeko Agentzia** da eta 1993. urtean sortu zen eskualdeko **garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko**. **Gaur egun, 18 urte geroago, tokiko erreferentea gara langabeei, ekintzaileei, enpresei, herritarrei eta bisitariei zerbitzuak emateko garaian.**

2012. urtean Garapen Agentziak prozesu bat garatu zuen Oarsoaldeko enplegu-plana egiteko. Tokiko erakundeekin eta instituzioekin, eragile sozialekin, enprekin eta gure eskualdearen garapen ekonomikoan eta sozialean parte hartzen duten beste entitate batzuekin adostuta egindako proiektua da enplegu-plana.

Erabilitako metodologiaren ondorioz, hainbat urtetarako enplegu-plan bat zehaztu zen. Bertan, helburuak eta jarduketa-lerroak finkatzeaz gain, tokiko enplegua eta garapena bultzatzeko proiektu jakinak zehaztu ziren.

Egindako diagnostikoaren eta finkatutako helburuen arabera, Oarsoalderako 2013ko enplegu-plana osatzen duten proiektu batzuk lehenetsi dira.

Proiektu horien helburua da eskualdean enplegua garatzea. Horretarako, besteak beste, eskualdeko jarduera tradizionalak eta lanbideak berreskuratu nahi dira, eta enplegu berdea eta eraikuntza jasagarria bultzatu nahi dira. Proiektuak era askotakoak dira: enplegu eta prestakuntza proiektuak, langabeak kontratazeko laguntzen proiektuak, ekintzailatza-proiektuak eta prestakuntza espezializatuko proiektuak.

Enplegu Plana

Helburuak eta estrategia

Xedea. Taldeak eta Jarduketa-eremuak

Xedea

Enplegu gehiago eta hobea sortu. Gure eskualdeko biztanleen bizi-kalitatea hobetu enpleguaren ikuspuntutik


Taldeak

Baztertuak izateko arriskua duten taldeak (genero-indarkeria jasaten duten emakumeak, atzeritarrak, kualifikazio-maila baxua duten eta menpekotasunak dituzten gizonak, ..), 45 urtetik gorako taldea, diru-sarrerak bermatzeko errenten jasotzaileak, besteak beste

Jardukera-eremuak

Eraikinen birgaitze jasangarria, birziklapena, turismoa, nekazaritzako elikagaiak, teknologia berriak, itsas-jarduerak, kultura, gizarte eta osasun arloko industriak, menpekotasuna, kultura ondarearen leheneratzea, besteak beste

Eskualdeko enplegu-planaren definizioa: Erronka estrategikoak



Ekintzen Plana eta Proiektuak

Proiektu berriaren definizioa: erronkak, jarduketa-lerroak eta proiektuak

1. ERRONKA:
eskualdean sustatu daitezkeen enplegua sortzeko dinamika sortuberriak integratu

- L1: Badia biziberritu nahi duten proiektuen sustapenean parte hartu**
1. Programa turistikoa bat diseinatu Pasaiako Portuan egiten diren Itsas bidaiei eskaintzeko: garraio egokituko monitore eta turismo egokituko gidari izateko prestakuntza-programa langabeentzat
- L2: Enpresa-ehunaren lankidetzaren sustatu enpleguari lotutako proiektuetan**
1. Langabeak kontratatze laguntza-programak baldintza eta sektore jakinetan
 2. Langabeak kontratatze laguntza-programak informazio eta komunikazio teknologien sektorean
 3. Langabeak kontratatze laguntza-programak elikagaigintzan
- L3: Sektoreak (nekazaritzako sektorea) eta lanbideak berreskuratzeko dinamika bultzatu**
1. Nekazari-herrixka: nekazaritzako produktuen produkzioari eta merkaturatzeari laguntza eman
 2. Gipuzkoako Aldundiaren nekazaritzako lurralde buruzko Dekretuari lotutako enplegua (nekazariak eta abeltzainak)
- L4: Ondarearen berreskuratzea eta birgaitzea sustatu**
1. San Juan Galeoiaren proiektuari lotutako prestakuntza-enplegu programa Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua barruan
 2. Okupatu gabeko lurzoru industrialaren eskaintza publikoa baloratzeko programa
 3. Eremita publikoak berreskuratzeko programa
 4. Hutsik dauden lokal eta orube pribatuaren eskaintza baloratzeko programa
- L5: Etxebizitza birgaitzea bultzatu**
1. Udal lizentziak eta baimenak eskuratzeko izapideak bizkortzeko programa
 2. Eraikinen azterketa teknikoaren erabilera udalen aldetik, birgaitzea sustatzeko
 3. Birgaitze-lanetarako finantziario-programa (behin-behineko finantziarioa banketxeekin, berantortasuna konpentsatzeko akordioak, lanen ordainketa-epeak egokitzeko akordioak)

Proiektu berriaren definizioa: erronkak, jarduketa-lerroak eta proiektuak

2. ERRONKA:
berrikuntza, garapena, teknologia berriak eta jardueraren sortuberriak bultzatu enplegua sortzeko

- L6: Ekintzaitza sustatzeko estrategiak inplementatu jardueraren sortuberrietan**
1. Herrilab: ekintzaitzarako eta gizarte-berrikuntzarako guneak (soziala, berdea, turismoa, kulturala, ekintzaitza)
 2. Sentsibilizazio-programak (Pentsamendu Taldeak,...)
 3. Udal lizentziak (jardueraren lizentziak eta irekitzeko, lehen okupazioko eta funtzionamenduko lizentziak) lotzeko izapideak bizkortzeko programa
- L7: Informazio eta komunikazio teknologiarik, kalitate, etab. erabili eskualdeko sektoreen giza-baliabideak lehiakorragoak izateko**
1. Birgaitze jasangarriari aplikatutako teknologia berrien programa
 2. Teknologia berrien programa establezimendu turistikoen
 3. Kalitate-programa establezimendu turistikoen
 4. Eraikinen azterketa teknikoak kudeatzeari buruzko prestakuntza-programa, teknikariak eta eraikitzaileak zuzendutakoak
 5. Material eta eraikuntza-teknika berriei eta eraikinen patologien konponketari buruzko prestakuntza-programa, eraikuntzako profesionalen zuzendutakoak
- L8: Berrikuntzari eta ikerketari lotutako erakundeak mobilizatu itsas-jardueren, teknologiarik eta elikagaigintzaren arloan proiektu berriak sustatzeko**
1. Itsas-sektoreari lotutako aukerak/merkatu-zokoak aztertu
- L9: Enpresen arteko lankidetzaren sustatutako duten programak bultzatu lehiakorragoak izateko**
1. Oarsoaldeko Sarea
 2. Oarsoaldea Bultzatuz
 3. Berrikuntza-foroak
 4. ELKARREKIN programa

Proiektu berriaren definizioa: erronkak, jarduketa-lerroak eta proiektuak

3.ERRONKA:
ahaleginak batu
erakunde eta
enpresekin
enplegarritasunera
ko

- L10: Enplegurako foro iraunkor bat sortu eskualdean (Foro nagusiaren eta lan-mahai espezializatuen eskemari eutsita, betiere)
 - 1. Eskualdeko enplegu-foroa sortzeko programa
- L11: Foroa eta lan-mahaiak sustatu enplegu proiektu eta proposamen berriak aztertzeko eta eztabaidatzeko
 - 1. Enplegu-behatokia sortu
- L12: Eskualdean enpleguarekin zerikusia duten beste erakunde batzuekin hitzarmenak egin
 - 1. Hitzarmenak enpresekin
 - 2. Hitzarmenak beste erakunde batzuekin
- L13: Enpresen gizarte-erantzukizuna bultzatu enpleguaren eta lan-harremanen inguruan
 - 1. Gizarte-erantzukizun korporatiboa

Proiektu berriaren definizioa: erronkak, jarduketa-lerroak eta proiektuak

4.ERRONKA: enplegu-
eskatzaileen
enplegarritasuna
hobetu

- L14: Eskualdeko taldeei zuzendutako programak sustatu genero ikuspegia kontuan hartuta
 - 1. Enplegu berdeari buruzko programa
 - 2. Kontratazio publikoko programa: Aiako Harria
 - 3. Kontratazio publikoko programa: komunikazioa eta giza-baliabideak
 - 4. Kontratazio publikoko programa: lan eta gizarte integrazioa
 - 5. Kontratazio publikoko programa
 - 6. Enpresetan genero-planak bultzatzeko programa
 - 7. Prestakuntza-programak
 - 8. Prestakuntza-enplegu programak
 - 9. Energia-eraginkortasunari buruzko prestakuntza-enplegu programa
 - 10. Material eta eraikuntza-teknika berriei eta eraikinen patologien konponketari buruzko prestakuntza-programa, eraikuntzako langabeei zuzendutakoa
- L15: Beste eragile batzuen programak bideratu
 - 1. Prestakuntza-programak
 - 2. Prestakuntza-enplegu programak
 - 3. Kontratazio-programak
- L16: Enplegurako eta ekintzailetzarako egungo baliabideei eutsi kalitate eta integritatean irizpideetan oinarrituta
- L17: Enplegua erregulatzeko espedienteetatik datozen langabeentzat enplegu eta ekintzailetza programak sustatu
 - 1. Ekintzailetza-programa, enplegua erregulatzeko espedienteetatik datozen taldeentzat

2013ko Enplegu Plana

2013ko proiektuak

Hauexek dira **Oarsoaldeko 2013ko Enplegu Plana** osatzen duten proiektuak:

Erronka	Jarduketa-lerroa	Proiektua	Tipologia
1. ERRONKA: eskualdean daitezkeen sortzeko sortuberriak integratu sustatu enplegua dinamika	1. L: Pasaia Badia biziberritu nahi duten proiektuen sustapenean parte hartu	Garraio egokituko monitore eta turismo egokituko gidari izateko prestakuntza- programa langabeentzat	Prestakuntza espezializatua
	2. L: Enpresa- ehunaren lankidetz sustatu enpleguari lotutako proiektuetan	Langabeak kontratatze ko laguntza-programak informazio eta komunikazio teknologi en sektorean eta elikagaigintzan	Kontratazioa
	4. L: Ondarearen berreskuratzea eta birgaitzea sustatu	San Juan Galeoiaren proiektuari lotutako prestakuntza-enplegu programa Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren barruan	Prestakuntza eta Enplegua
2. ERRONKA: berrikuntza, garapena, teknologia berriak eta jarauera sortuberriak bultzatu enplegua sortzeko	6. L: Ekintzail etz sustatzeko estrategiak inplemantatu jarauera sortuberritan	Herrilab proiektua, ekintzail etzarako eta gizarte- berrikuntzarako guneak	Ekintzail etz
	4. ERRONKA: enplegu- eskatzaileen enplegarritasuna hobetu	14. L: Eskualdeko taldeei zuzendutako programak sustatu genero ikuspegia kontuan hartuta	Aiako Harria kontratazio-programa:
Energia- eraginkortasunari buruzko prestakuntza eta enplegu programa			Prestakuntza eta Enplegua

Proiektua: TURISMO-GIDARIAK EDO TURISMO-TALDEETAKO LAGUNTZAILEAK. Garraio egokituko monitore eta turismo egokituko gidari izateko prestakuntza

Proiektuaren tipologia: prestakuntza espezializatuko proiektua

1.1. Ideia nagusia

Proiektu honen bidez, garraio egokituko monitore eta turismo egokituko gidari izateko prestakuntza espezializatua eman nahi zaie 10 pertsonari.

1.2. Proiektuaren helburua

Helburu orokorra

Langabezian dauden 10 pertsona trebatu nahi dira menpekotasunarekin eta turismoarekin zerikusia duten jarduera sortuberritan lan egiteko.

Helburu espezifikoak

☉ Mugikortasun-ahalmen txikira egokitutako garraiobideetan adinekoei eta gaixoei laguntzeko prestakuntza eman, eta lan hori profesionaltasunez egiteko beharrezkoak diren abilezia guztiak irakatsi.

☉ Turismo irisgarriaren munduan murgildu, eta horretarako, guztion eskura dauden pakete turistikoak sortu; izan ere, turismo inklusiboa enplegu-hobi berria da.

1.3. Atzemandako beharraren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Indarrak

- ⊙ Koordinazio publiko-pribatua turismoaren arloan.
- ⊙ Koordinazioa Gipuzkoako eskualdeen eta Aldundiko turismo sailaren artean.
- ⊙ Pasaiaiko eta Oiartzungo turismo-bulegoak: funtzionamendu ona.
- ⊙ Kalitate turistikoaren programa ezarri da. Jardunbide Egokiak kalitate turistikoaren programa eskualdeko 18 enpresatan ezarri da lehiakortasuna hobetzeko.

Mehatxuak

- ⊙ Ostatu-gau kopurua jaitsi egin zen Gipuzkoan 2012an.
- ⊙ Bisitari gutxiago etorri ziren Estatutik.

Ahuleziak

- ⊙ Sortzen ari diren sektoreen ezjakintasuna.

Aukerak

- ⊙ Itsas bidaiak Pasaian.
- ⊙ Tradizio turistiko gutxiko eskualdea.
- ⊙ 2012an Euskadin bidaiarien sarrerak gora egin zuen. Pasaiaiko badia biziberritzea.

Turismoa enplegua sortzeko aukera bat da. Estatuko turismoa pisua galtzen ari den arren, zifra absolutuetan bidaiarien sarrera handitzen ari da Euskadin, hau da, atzerriko turismoa handitzen ari da. Turismo hori beste modu batean mugitzen da, eta beste zerbitzu batzuk behar ditu. Alabaina, ezjakintasun handia dago alderdi horien inguruan. Horren harira, bidaiarien sarrera horiek eta batez ere itsas bidaietako sarrerak aprobeztatzeko gai izan behar dugu, hau da, sortzen diren premia berriei erantzun ahal izateko ondo prestatuta egon behar dugu.

Hori dela-eta, **enplegu-planean hauxe planteatzen da:**

1. erronka: eskualdean sustatu daitezkeen kalitatezko enplegua sortzeko dinamika sortuberririk integratu

1. jarduketa-lerroa: badia biziberritu nahi duten proiektuen sustapenean parte hartu

Jarduketa-lerro horretan: Pasaiaiko Badia suspertu nahi duten proiektuak garatu nahi dira eta, kasu honetan zehazki, hemen planteatzen den proiektua Pasaiaiko Portuan egiten diren Itsas bidaiari eskaini nahi zaien eskaintza turistikoaren egokitzapenari lotuta egongo litzateke.

1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Hauxe da programaren helburua:

- enplegua sortu eta aukera berriak atzeman eskualdean eskura ditugun baliabide guztien dinamizazioaren bidez.
- Enplegu gehiago eta hobeagoa sortzeko mekanismo eta tresna berriak diseinatu eta inplementatu.
- Eskualdeko eragile instituzionalak, ekonomikoak eta sozialak koordinatu eta inplikatu.

1.5. Lanerako plana

Parte-hartzaileen hautaketa

Garraio egokituko monitore izateko prestakuntza (70 ordu)

Praktikak garraio egokituko monitore gisa (80 ordu)

Turismo egokituko gidari izateko prestakuntza (120 ordu)

Turismo egokituko gidarien jarduera praktikoa (10 ordu)

Bere eremuan egokitutako bidaiaren proiektu propioaren prestakuntza (30 ordu)

Lan-munduan txertatzeko eta enpresak sortzeko prestakuntza (60 ordu)

1.6. Adierazleak

Parte-hartzaile-kopurua	10
Proiektuaren aurrekontua	50.631,57 euro
Enpleguen tipologia	Mendeko pertsonentzako arreta eta turismoa

Proiektua: Langabeak kontratatzekeo laguntza-programak informazio eta komunikazio teknologien sektorean, elikagaigintzan eta Enpresa Laguntzaileetan

Proiektuaren tipologia: kontratazio-proiektua

1.1. Ideia nagusia

Proiektu honen bidez, gure eskualdeko sektore estrategikoetan kalitatezko enplegu jasagarria sortu nahi da. Sektore horiek, krisia egonda ere, garatzeko aukera handiak dituzte, besteak beste, eraikuntzarekin eta metalgintzarekin alderatuta.

Egun bizi dugun krisi-egoera aukera bat da sektore sortuberrien aldeko estrategiak bultzatzeko eta garatzeko, sektore horiek baitira ekonomia suspertzeko beharrezkoa den enplegua eta hazkundera ekarriko dutenak.

1.2. Proiektuaren helburua

Helburu orokorra

☉ Informazio eta komunikazio teknologien sektorea, elikagaigintza eta Oarsoaldean sektore horiei zerbitzuak ematen dizkieten enpresa laguntzaileen sektorea finkatu.

Helburu espezifikoak

☉ Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko, elikagaigintzako eta Enpresa Laguntzaileen sektoreko lehiakortasuna hobetu.

☉ Langabeek bete ditzaketen kualifikazio ertaineko-baxuko lanpostuak eta kualifikazio ertaineko-altuko lanpostuak atzeman.

1.3. Atzemandako beharraren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Mehatxuak

- ⊙ Estatuko merkatua geratuta dago.
- ⊙ Egungo krisi ekonomikoa.
- ⊙ Finantziazio-zailtasunak.

Ahuleziak

- ⊙ Garapen teknologiko gutxi duten enpresak.
- ⊙ Enpresen maila teknologikoa.
- ⊙ Teknologistan –Informazio eta komunikazio teknologistan– ezaupideak dituzten langileak aurkitzeko zailtasuna dago, eta prestakuntza eman behar izanez gero, ez dute denbora nahikorik.


Aukerak

- ⊙ Esploratzeagatik eta ekintzailtza sortzeagatik aukerak eskaini ditzaketen zerbitzu-enpresen ehun bat dago.
- ⊙ Sortzen ari diren merkatuetarantz/herrialdeetarantz internazionalizazioa.
- ⊙ Oarsoaldea eta Euskal Herria oro har ondo jatearen eta ondo egitearen erreferente dira.

Indarrak

- ⊙ Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresak txikiak direnez, malgutasun handia dute proiektuetara egokitzeko.
- ⊙ Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresa asko daude.
- ⊙ Elikagaigintzako enpresa asko daude, pertsona asko kontratatzen dituztenak.
- ⊙ Esploratzeagatik eta sinergiak sortzeagatik aukerak eskaini ditzaketen elikagaigintzako enpresen ehun bat dago.

Mehatxu horiei aurre egiteko, gure ahuleziak arintzeko eta ditugun aukerak aprobetxatzeko, **enplegu-planak enpresen lehiakortasuna hobetu nahi du informazio eta komunikazio teknologien bidez, eta enpresen arteko sinergiak bultzatuko dituen elikagaien klusterra sortu nahi du eskualdean.**



1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Datozen urteetan bilakaera ekonomikoaren erronkei eta aukerei aurre egiteko gai den ehun ekonomikoa sortu nahi da, eta horretarako, aberastasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko duten proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

Proiektu honek eskualdeko enpresek elkartzeko eta elkarlanean aritzeko duten ahalmena bultzatu nahi du, eta aukera ematen du edozein ideia aztertzeko sektore bereko beste enpresa batzuekin edo sektore ezberdinetako enpresekin.

Proiektu honi esker, "lehiakortasuna" kontzeptuaren beste ikuspegi bat izango genuke; izan ere, lan egiteko, lehiatzeko eta elkarlanean aritzeko beste modu bat da.

Bestalde, informazio eta komunikazio teknologien ikuspegia asko aldatu da azken bi hamarkadetan. Hasieran, batez ere enpresa-prozesuen mekanizazioan erabilitako tresna ziren informazio eta komunikazio teknologiak. Eraginkortasun bilatzea zuten helburu, eta, ondorioz, kostuak murriztera zuzentzen zen haien erabilera.

Gaur egun, enpresa batzuek gaitasun espezifikoko batzuekin (adibidez, zuzendaritzaren konpromisoa, erakunde-ikaskuntza eta bezeroekiko eta hornitzaileekiko integrazioa) osatzen dituzte teknologiek, eta, horri esker, hobetu egiten dituzte enpresa-emaitzak, eta lehiaketa-abantaila jasangarriak indartzen.

Haien hedapen orokor bat lortu behar da maila guztietan, eta eten digitalari eraso behar zaio. Eta, horrez gain, honako hau dugu erronka nagusia orain: bilakaera teknologikora egokitzeko etengabeko prozesuak eskaintzen dituen aukeretatik probetxu ekonomikoa ateratzea.

1.5. Lanerako plana

- ④ Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresen, elikagaigintzako enpresen eta enpresa laguntzaileen zundaketa.
- ④ Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresek, elikagaigintzako enpresek eta enpresa laguntzaileek langabeak kontratatzeke diru-laguntzen deialdiaren argitalpena.
- ④ Kontrataziorako profilen definizioa
- ④ Enplegu-eskaintzaren gestioa: Hautagaiak atzematea eta aurkeztea.
- ④ Pertsonen hautaketa eta kontratazioa.
- ④ Kontrataturako pertsonen segimendua eta ebaluazioa.

1.6. Adierazleak

Enplegu-kopurua	46
Proiektuaren aurrekontua	484.200 euro
Enpleguen tipologia	Profil teknikoak eta kualifikazio gutxiagokoak. Teknologia berriak eta elikagaigintza

Proiektua: SAN JUAN ITSASONTZIA

Proiektuaren tipologia: prestakuntza eta enplegu proiektua

1.1. Ideia nagusia

Proiektuaren ideia nagusia da **San Juan itsasontziaren erreplika bat eraikitzea, betiere garaiko teknikak eta materialak erabilia. Modu horretan, lanbide tradizionalak berreskuratuko lirateke eta enplegua sortuko litzateke. Horrez gain, eraikuntza-gunea ekipamendu kultural eta turistiko garrantzitsua bihurtuko litzateke.**

Proiektua Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren barruan gauzatuko da. Bai maila sinbolikoan bai praktikan, San Juan baleontziaren berreraikuntza bat dator “Herritarren energia-olatuak” lemarekin. Ekimenean parte hartu nahi duten **donostiar, gipuzkoar eta gainerako euskal herritarrekin** egin nahi den proiektua da honakoa.

San Juan baleontziaren garaian, euskal herritarren eguneroko zeregina nola edo hala itsasoari lotuta zegoen. Garai hartako burdinolak, basoak, lantegiak eta bideak itsas-industriaren beharrak asetzerantz zuzenduta zeuden neurri handi batean.

Ekimen hau ez da San Juan baleontzia eraikitzea mugatzen; **XVI. mendeko Euskal Herriko unibertso teknologiko guztia berreraiki nahi da Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroan.** Itsasontzigileez gain, sokagileak, bela-egileak, errementariak, upelgileak, etab. egongo dira, aspaldi galdutako lanbideak berreskuratzen nahian.

Proiektu honi esker, Ondartxo eta, beraz, **Pasaia eta Oarsoaldea itsas-ondarearen munduko erreferentziak izango dira**, eta oinarriak jarriko ditu etorkizunean antzeko proiektuak egin ahal izateko. San Juan baleontziaren eraikuntzak **produktu turistiko integrala eta erakargarria** sortzeko aukera ematen du.

1.2. Proiektuaren helburua

Helburu orokorra

Euskal nortasunaren ikur indartsu bat sortu, iraganean izan ginenaren erakusle izango dena, eta etorkizunean izan gaitezkeenari buruz hausnartu.

Helburu espezifikoak

- ⊙ Pasaiaiko Badia biziberritu: Pasa den mendearen bukaeran industriak eta arrantzak izandako gainbeherak asko zigortu zuen Pasaia. Orain, San Juan baleontziaren proiektua lagungarria izan daiteke itsas-kulturaren bidez Pasaia suspertzeko. Betidanik industria eta arrantza izan diren bezala, aurrerantzean itsas-ondarea ere garapen-faktorea izango da.
- ⊙ Produktu turistiko bat sortu: Ondartxo ekipamendu turistiko berritzailea eta erreferentziazkoa izango da, identitatean eta benetakotasunean oinarrituta egongo dena.
- ⊙ Itsas-kulturaren erreferentzia bihurtu: Europako ezaguera geografikoaren, teknologiaren eta zientziaren zabalkuntzaren garaiko, hau da, Euskal Herria itsas-teknologian Europako aitzindaria zen garaiko itsasontzi baten erreplika izan; eta Kanadak eta Euskal Herriak partekatzen duten itsas-ondarearen ikurra izan.
- ⊙ Lotura izan Amerikarekin: Europarren eta amerindiarren arteko adiskidantzazko lotura den ikurra sortu, Amerikako historian aurrekaririk ez duen lotura, hain zuzen ere.
- ⊙ Pasaiaen izaera eta barrutien arteko kohesioa indartu.
- ⊙ Itsas-kulturaren sozializazioa: Proiektu hau aukera paregabea izan daiteke, batetik, Pasaia XVI. mendeko Europan izan zuen garrantziaz jabetzeko, eta, bestetik, ahaztutako ondarea berreskuratzeko.

1.3. Atzemandako beharren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Mehatxuak

- ⊙ Ostatu-gau kopurua jaitsi egin zen Gipuzkoan 2012an.


Ahuleziak

- ⊙ Tradizio turistiko gutxiko sektorea.
- ⊙ Erakundeen adostasun falta badia barrutik leheneratzearen inguruan. Adostasun falta hori eskualdeko garapen turistikoa oztopatzen ari da.

Aukerak

- 🌀 San Juan itsasontziaren proiektua proiekturik garrantzitsuenetakoa da Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren barruan.
- 🌀 Pasaiaiko Badiaren biziberritzea
- 🌀 2012an Euskadin bidaiarien sarrerak gora egin zuen.

Mehatxu horiei aurre egiteko, gure ahuleziak arintzeko eta ditugun aukerak aprobetxatzeko, **enplegu-planak Pasaiaiko badia dinamizatu eta bisitariak erakarri nahi ditu San Juan itsasontziaren bidez.**



Jarduketa-lerro horretan: Pasaiaiko Badia suspertu nahi duten proiektuak garatu nahi dira eta, kasu honetan zehazki, Euskal Herriko erreferentziazko ekipamendu kultural eta turistiko berritzaile bat sortu nahi da.

1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Datozen urteetan bilakaera ekonomikoaren erronkei eta aukerei aurre egiteko gai den ehun ekonomikoa sortu nahi da, eta horretarako, aberastasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko duten proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

Ondartxok euskal kultura-ekipamendu jasangarria eta erreferentziazkoa izan nahi du. Proiektu honek Ondartxo Itsas Kulturaren Zentrora erakarri nahi du itsas historian eta kulturaren oinarritutako turismoa eta, ondorioz, Pasaiaiko badiara eta Oarsoaldera, Euskal Herrian inoiz abiatu den dinamizazio garrantzitsuenaren eta integrazioaren bidez.

Herri baten itsas-identitatea oso erakargarria izan daiteke turismoarentzat. Gaur egun kalitatezko produktu turistikoaren eskari handia dago; bisitariak nortasun handiko lekuak ikusi nahi dituzte, eta benetakotasuna estimatzen dute. Hona hemen Europako antzeko proiektu arrakastatsu batzuk: Bataviawerf (Holanda), L'Hermione (Frantzia), Vasa Museoa (Suedia), etab.

Gune dinamikoak sortu behar dira itsas-kultura interpretatzeko, hau da, itsas-kultura ulertzeko eta ezagutzeko. Eta horretarako, ezinbestekoa da gune horietan bizitakoa, ikusitakoa, usaindutakoa eta entzundakoa.

Ondartxo Itsas Kulturaren Zentroak eskualdeko lan-merkatuan izango duen eragina bikoitza da. Batetik, lanpostu zuzenak sortuko dira Ondartxon (bisitariarentzako arreta, lan teknikoak eta administratiboak); aurreikuspenaren arabera, Ondartxo ekimenak 35 langilek osatutako oinarritzko lan-talde bat sortuko du. Bestetik, bisitarien mugimenduak eragin positiboa izango du herriko eta eskualdeko ekonomian, eta lanpostu berriak sortzen lagunduko du.

1.5. Lanerako plana

 **Parte-hartzaileen hautaketa**

 **Prestakuntza-fasea**

 **Enplegu-fasea**

1.6. Adierazleak

Enplegu-kopurua	11
Proiektuaren aurrekontua	156.371,95 euro
Enpleguen tipologia	Zurgintza: 8 Turismoko agentea: 2 Administrari laguntzailea: 1

Proiektua: HERRILAB gizarte-ekintzailetzarako guneak

Proiektuaren tipologia: ekintzailetza eta autoenplegu proiektua

1.1. Ideia nagusia

Eskualdeko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa bultzatu eta babestu, eskualdea suspertzeko eta leheneratzeko jarduera ekonomiko eta dinamika berrien bidez.

Horretarako, **gune bat sortu** nahi da enpresa-ehunaren, ekintzaileen eta herritarren artean **sinergiak sortzeko, ekintzailetza sustatzeko** eta ideiak sortzeko. Ideia berrien sorkuntza erraztu nahi da garatu beharreko ideiak elkarlanean sortuz eta diseinatuz. Ekimen hau **HERRILAB** deitzen da.

Herrilab ekimenak Oarsoaldea biziberritzen lagundu nahi du, eta horretarako, hauxe proposatzen du: jarduera tradizionalan eta tradiziozko industria-sektoreetan oinarritutako ekonomia batetik ezagutzaren gizarte batera igarotzea, eta balio erantsi handia duten produktuak eta zerbitzuak elkarlanean sortzea eskualdeko ekonomia suspertzeko eta kalitatezko enpleguak sortzeko.

1.2. Proiektuaren helburua

Helburu orokorra

Tokiko sortzeko ahalmenari lagundu, izpiritu ekintzailea erraztu eta gizarte-sarearen balioetan eta lankidetzan oinarritutako gizarte eta enpresa dinamika berriak bultzatu.

Helburu espezifikokoak

- ☉ OARSOALDEKO herritarren sortzeko ahalmena eta ahalmen ekintzailea piztu eta berreskuratu.
- ☉ Enpresen, ezagutza-zentroen, ekintzaileen eta herritarren arteko topaguneak sortu, ideiak proiektu bideragarri eta jasangarri bihurtzeko.
- ☉ Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa ongizatea eta bizi-kalitatea sortuko duten beste jarduera bideragarri eta jasangarri batzuetarantz sustatzen duten proiektuak bultzatu, bereziki sektore sortuberriekin zerikusia dutenak: berdea, soziala, teknologia berriak eta kultura eta sorkuntza.

1.3. Atzemandako beharraren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Mehatxuak

- ⌚ Krisi ekonomikoaren eta beldurraren ondorioz, eskualdeko ekintzaileen jarduera geratuta dago.
- ⌚ Eskualdeko establezimendu-kopurua asko jaisten ari da.


Ahuleziak

- ⌚ Enpresa berrien jarduerak tradizionalak dira eta ez dira oso berritzaileak.

Aukerak

- ⌚ Esploratzeagatik eta ekintzailtza sortzeagatik aukerak eskaini ditzaketen zerbitzu-enpresen ehun bat dago.
- ⌚ Zentro teknologikoen sare bat dago eskualdetik oso hurbil.

Mehatxu horiei aurre egiteko, gure ahuleziak arintzeko eta ditugun aukerak aprobetxatzeko, **enplegu-planak ekintzailtza sustatu nahi du jarduera sortuberritan:**



Jarduketa-lerro horretan: berrikuntza, ezagutzaren ekonomia eta jarduera sortuberririk bultzatu nahi dituzten proiektuak garatu nahi dira.

1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Datozen urteetan bilakaera ekonomikoaren erronkei eta aukerei aurre egiteko gai den ehun ekonomikoa sortu nahi da, eta horretarako, aberastasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko duten proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

Mota honetako esperientziek **sortzeko ahalmena eta bultzada ekintzailea** erraztu nahi dute, eta aukera ematen dute egoera berdinean dauden beste pertsona batzuen artean hasierako kezka partekatzeko eta aztertzeko.

Proiektu honek zerbitzu-tipologia berri bat jarriko luke ekintzaitzaren eskura; izan ere, ekintzaitza modu berri bat da lurraldeen sortzeko ahalmena dinamizatzeko eta enpresa berriak sortu edo enpresa-proiektuak indartu nahi dituztenen arteko interakzioa errazteko.

Oarsoaldeko erreferentziatzeko gune izan nahi du; izan ere, enpresa eta gizarte ekintzaitzaren sustapena da herritarren bizi-kalitatea hobetzeko, eskualdeko udalerrriak leheneratzeko eta bertako ekonomia suspertzeko modurik egokiena.

1.5. Lanerako plana

- ▣ Herrilab ekimenaren helburuak zehaztu
- ▣ Komunitatea identifikatu eta sortu
- ▣ Negozio-ideia berriak identifikatu eta aztertu
- ▣ Herrilab ekimenaren negozio-ereduaren diseinua
- ▣ Enpresa berrien negozio-ereduaren diseinua
- ▣ Herrilab proiektuaren jasangarritasunerantz
- ▣ Komunitatea eta enpresak abiarazi eta gune berriak aurkitu

1.6. Adierazleak

Enplegu-kopurua	14
Proiektuaren aurrekontua	100.000 euro
Enpleguen tipologia	12 ekintzaile 2 enplegu kontratatu

Proiektua: AIAKO HARRIA

Proiektuaren tipologia: langabeak kontratazeko laguntza-proiektua

1.1. Ideia nagusia

Proiektu hau bat dator 1993. urteaz geroztik “Enplegu, lehiakortasun eta hazkundea. XXI. mendean sartzeko erronkak” liburu zuriaren bidez sustatzen ari den enplegu-hobi berrien kontzeptuarekin.

Tokiko enplegu-ekimenei eta tokiko garapen-ekimenei lotutako proiektua da honakoa.

Jarduera enplegu-hobi berrien laugarren taldean dago, hau da, ingurumen-zerbitzuei lotutako jardueretan: hondakinen gestioa, uraren gestioa, natura-guneen babesa eta kontserbazioa, instalazioen eta energiaren kontrolari buruzko araudia.

Eskualdeko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa bultzatu eta babestu nahi dugu, jarduera ekonomiko eta dinamika berrien bidez.

Aiako Harria Parke Naturalak 6.913 hektarea ditu eta ondo zehaztutako 800 metrotik gorako hiru gailur: Irumugarrieta, Txurumuru eta Erroilbide. Paleozoikoan sorturiko mendigunea da, eta herrialdeko materialik zaharrenak ditu.

Parkeak dituen basoen artean nabarmentzekoa da Urdaburu mendiaren eta Añarbeko urtegiko bazterren arteko eremua, oso handia eta garrantzitsua baita. Inguruaren orografia bihurtuak dela-eta, ur-jauziak daude, eta ezkutuko sakanek jatorrizko fisionomiari eutsi diote. Aiako Harriko Parke Naturalak, ordea, badu altxor ezkutu bat lurrazpian: Arditurriko meategiak. Hortaz, bisitariak azken bi mila urteetan ustiatuak izan diren meategiak ezagutu ahal izango ditu.

Aiako Harria Parke Naturalak ondo bereizitako hiru eremu ditu: Añarbeko urtegia inguratzen duten pagadiak eta hariztiak, gailurretako granitozko harkaitzak eta Aitzondo edo Endarako errekek. Baso zerratuetan askotariko fauna eta flora dago, eta leku idilikoa da mendizalearentzat.

Gizakia antzinatik ibili izan da paraje hauetatik. Eta arrastoa utzi du. Batzuetan, arrasto magikoa utzi du, Oiartzun eta Igoin-Akolako monumentu megalitikoak kasu. Oianlekuko harrespletara hurbilduz gero, denboran zehar bidaiatuko dugu dudarik gabe.

1.2. Proiektuaren helburua

Aiako Harria Parke Naturalak eta inguruneak mantendu eta ustiatu behar dira, eta Udalak eta/edo Gipuzkoako Foru Aldundiak aipatutako lanak esleitzeko lehiaketak deituko ditu laster.

Udalerriek dituzten ekipamenduen eta aisialdirako guneen premietatik abiatuta, atsedenguneen ustiapena eta mantentzea sustatu nahi da Udalek laster deituko dituzten lehiaketen bidez, langabeen kualifikazio profesionalaren bidez, Lan eta Gizarte Gaietarako Sailaren 3908. Xedapenarekin bat etorritik (2012ko abuztuaren 29ko EHAO).

Helburu orokorra

Hainbat gremiotako langabe kualifikatu, enplegu-programa bukatzen dutenean Aiako Harria Parke Naturalari lotutako nekazaritza-eremuak zaintzeko gai izan daitezen.

Helburu espezifikoak

- ☉ Natura-guneak babestu eta mantendu.

Narriadura kontrolatu; parke naturalen eta erreserben programak, eta natura-gune berriak sortzeko programak, basoberritzeko edo lurra eraikitzeko programak, baso-suteen prebentzioa; azpiegituren eraikuntza eta kontserbazioa, ingurumen-heziketa.

- ☉ Eremuak birbaloratu.

Bizikidetzaranzko eremua funtzionalak sortu; birmoldatu eta birgaitu; lanbidei eustea eta birkualifikatzea ahalbidetzen duten jarduerak; eremu publikoak mantendu.

- ☉ Energia gestionatu:

Energia aurrezteko ekintzak behar-beharrezkoa erabilita, osagaiak zaindu, identifikatu, inbentariatu eta planotan jaso.

- ☉ Ondare kulturalari balioa eman. Horretarako, balio arkitektonikoa duten piezak eta nekazaritza-guneak babestuko dira.

- ☉ Azpiegitura berriak hobetu edo lehendik daudenak mantendu: ura bideratu, baliabideak berrerabili, hala badagokio, energia-iturri berriak erabili.

- ☉ Enpresen, ezagutza-zentroen, ekintzaileen eta herritarren arteko topaguneak sortu, ideiak proiektu bideragarri eta jasagarri bihurtzeko.

- ☉ Jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa ongizatea eta bizi-kalitatea sortuko duten beste jarduera bideragarri eta jasagarri batzuetarantz sustatzen duten proiektuak bultzatu, bereziki sektore sortuberriekin zerikusia dutenak: berdea, soziala, kultura eta sorkuntza.

- ☉ Enplegua sustatu natura-ondarearen dinamizaziotik.

- ☉ Natura-ondarea erabili baliabide turistiko gisa: naturari lotutako produktu turistikoak sortu eta sustatu eskualdean.

- ☉ Aiako Harriako natura-guneak ezagutarazi eta zabaldu.

- ☉ Aiako Harriako natura-guneei buruzko informazioa zentralizatu eta eskura jarri.

1.3. Atzemandako beharraren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Mehatxuak


- ⊗ Krisi ekonomikoaren eta beldurraren ondorioz, eskualdeko ekintzaileen jarduera geratuta dago.
- ⊗ Lan-merkatu librearen besteak beste, Lanbiden alde aurretik eskaintzak aurkeztu behar ez dituzten enprezentzat.
- ⊗ Udalerrien eta Tokiko Garapen Agentzien ezaupideak erabiltzeko Eusko Jaurlaritzaren konpromiso falta argia.
- ⊗ Egungo krisiari aurre egiteko giza-baliabide eta azpiegitura falta.
- ⊗ Finantziario falta eta Udalek batera finantzatzeko ahalmen oso mugatua.

Ahuleziak

- ⊗ Langabe-kopuruaren gorakada, Gipuzkoako batezbestekoa baino handiagoa Erreterian eta Pasaian.
- ⊗ Lan merkatuaren desregularizazioa.
- ⊗ Enplegu-eskaintza urria, bereziki eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan.
- ⊗ Tokiko administrazioak ez du eraginik enpresa-jardueran, eta ondorioz, ezin da jakin enpresek epe laburrean, ertainean eta luzean izango dituzten beharrak.
- ⊗ Garapen teknologiko gutxi duten enpresak.
- ⊗ Ekonomiaren foro traktoreen eta enpresen falta.

Aukerak

- ☉ Esploratzeagatik eta ekintzailtza sortzeagatik aukerak eskaini ditzaketen zerbitzu-enpresen ehun bat dago.
- ☉ Zentro teknologikoen sare bat dago eskualdetik hurbil.
- ☉ Jarduera turistikoa pixkanaka handitzen ari da.
- ☉ Aiako Harritik gertu dauden eremuak, esaterako Pasaia badi leheneratzeko planak daude.
- ☉ Nekazaritza-guneak edo herrigunetik urrun dauden guneak mantentzeko beharra geroz eta handiagoa da.
- ☉ Bizilagunek positiboki baloratzen dituzte atsedenerako eta aisialdirako natura-guneak.



1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Datozen urteetan bilakaera ekonomikoaren erronkei eta aukerei aurre egiteko gai den ehun ekonomikoa sortu nahi da, eta horretarako, aberastasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko duten proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

Esperientzia honekin sortzeko ahalmena eta bultzada ekintzailea erraztu nahi dira, diziplina hauen bidez: Geologia, Hidrologia, Klima, Lurrak, Landaredia, Paisaia eta Ondarea.

Natura-gunea leneneratzeko egingo diren lanek zerikusia izango dute sarbideekin, bide-sareekin, drainatze-sareekin, lur-mugimenduekin, berreskuratutako lur-ekarpenekin, hondakindegien egonkortzearekin eta kontrolarekin.

Proiektu honek zerbitzu-tipologia berri bat jarriko luke ekintzailtzaren eskura; izan ere, ekintzailtza modu berri bat da lurraldeen sortzeko ahalmena dinamizatzeko eta enpresa berriak sortu edo enpresa-proiektuak indartu nahi dituztenen arteko interakzioa errazteko.

1.5. Lanerako plana

[▣ Hedapen eta informazio jarduerak.](#)

[▣ Hautaketa prozesua](#)

[▣ Jarduera profesionalen kontratazioa eta garapena](#)

[▣ Aiako Harria proiektuaren eta ondoko guneen jasangarritasunerantz](#)

1.6. Adierazleak

Enplegu-kopurua	20
Proiektuaren aurrekontua	215.142,82 euro
Enpleguen tipologia	Errementaritza: 2 Pintura: 1 Langile balioaniztuna: 2 Basogintza: 3 Lorezaintza: 5 Parkeko zaindariak: 2 Turismoko agentea: 2 Informatikoa: 1 Marketina eta komunikazioa: 1 Administrari laguntzailea: 1

Proiektua: Energia eraginkortasuna

Proiektuaren tipologia: prestakuntza eta enplegu proiektua

1.1. Ideia nagusia

Proiektu hau bat dator 2010eko ekainaren 16an izenpetutako etxebizitzaren aldeko itun sozialarekin. Itun horren arabera, energia eraginkortasuna hobetu behar da eraikitako parkea leheneratzeko eta eraikuntzak birgaitzeko orduan.

Tokiko enplegu-ekimenei eta tokiko garapen-ekimenei lotutako proiektua da honakoa.

Helburua hau da: berotegi-efektuko gasen isuria eta lehendik dauden eraikinetako eskari energetikoa pixkanaka murriztea.

Badira baldintzatzaile batzuk etxebizitzaren eta herri-lanen ekipamenduak berritzea zailtzen dituztenak.

Eskualdeko jarduera ekonomikoaren dibertsifikazioa bultzatu eta babestu nahi dugu, jarduera ekonomiko eta dinamika berrien bidez.

1.2. Proiektuaren helburua

Prestakuntza eta enplegu ekintza honen bidez, garapen jasangarria bultzatu nahi dugu, garapen jasangarria baita oraingo beharrak betetzen dituen ondorengo belaunaldiek beren beharrak betetzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Garapen-urteetako eskakizunak direla-eta hazkunde mugagabearen oinarritutako orain arteko politika gelditu beharra dago.

Kontsumo energetikoari dagokionez, Eurostaten arabera, Europar Batasuneko 27 estatuetan kontsumitzen den %24,58 bizitegi-sektoreari dagokio. Horregatik da hain garrantzitsua eraikinen energia eraginkortasuna hobetzea.

Helburu orokorra

Egiturazko edo eraikuntzazko esku-hartze profesionalak eraikinetan eta hiria leheneratzeko esku-hartzeak abiatu, gastu energetikoa murrizteko eta baliabide naturalen erabilera jasangarria izateko.

Helburu espezifikokoak

☉ Eraikinen barruko zatiketen, egituren eta itxituren parametroak eta beste eraikuntza-ezaugarri batzuk aztertu eta eraikinaren eskari-energetikoa mugatzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatatu.

- Proiektuko informazioa sailkatu kontsumo energetikoan parte hartzen duten faktoreak zehazteko.
- Egitura eta zimendatze motak sailkatu portaera energetikoaren arabera.
- Itxitura, estalki, zatiketa motak sailkatu portaera energetikoaren arabera.
- Eraikinen kokapenak eta orientazioak eskari-energetikoan duten eragina azaldu.
- Eguzki sistema pasiboetatik eta babes sistemetatik datozen ekarpen energetikoak azaldu.

☉ Eraikinen eraikuntzan erabilitako materialen kondentsazioen, iragazkortasunaren eta isolamendu termikoaren eragina aztertu eta eraikinaren eskari-energetikoa mugatzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatatu.

☉ Azterketa praktikoa bat egin eraikin publiko batean ikastaroaren alderdiei buruz.

1.3. Atzemandako beharraren justifikazioa

Eskualdeko Enplegu Planaren AMIA azterketa eskualdeko egoeraren diagnostikoaren emaitza da, eta bertan, ondorio hauek atera dira:

Mehatxuak


- ☉ Krisi ekonomikoaren eta beldurraren ondorioz, eskualdeko ekintzaileen jarduera geratuta dago.
- ☉ Lan-merkatu librean, besteak beste, Lanbiden alde aurretik eskaintzak aurkeztu behar ez dituzten enprezentzat.
- ☉ Udalerrien eta Tokiko Garapen Agentzien ezaupideak erabiltzeko Eusko Jaurlaritzaren konpromiso falta argia.
- ☉ Egungo krisiari aurre egiteko giza-baliabide eta azpiegitura falta.
- ☉ Finantziario falta eta Udalek batera finantzatzeko ahalmen oso mugatua.

Ahuleziak

- ☉ Langabe-kopuruaren gorakada, Gipuzkoako batezbestekoa baino handiagoa Errenterian eta Pasaietan.
- ☉ Lan merkatuaren desregularizazioa.
- ☉ Enplegu-eskaintza urria, bereziki eraikuntzaren eta industriaren sektoreetan.
- ☉ Tokiko administrazioak ez du eraginik enpresa-jardueran, eta ondorioz, ezin da jakin enpresek epe laburrean, ertainean eta luzean izango dituzten beharrak.
- ☉ Garapen teknologiko gutxi duten enpresak.
- ☉ Ekonomiaren foro traktoreen eta enpresen falta.

Aukerak

- 🌀 Jarduera aldatzeagatik edo egokitzeagatik aukerak eskaini ditzaketen zerbitzu-enpresen ehun bat dago.
- 🌀 Zentro teknologikoen sare bat dago eskualdetik hurbil.
- 🌀 Etxebizitza-parkea berritzeko behar handia dago eskualdean.



1.4. Garapen ekonomikorako orientazioa

Datozen urteetan bilakaera ekonomikoaren erronkei eta aukerei aurre egiteko gai den ehun ekonomikoa sortu nahi da, eta horretarako, aberastasuna eta gizarte-ongizatea ekarriko duten proiektu berritzaileak sustatu behar dira.

Proiektu honek eraikuntzaren sektoreko profesionalen tipologia berri bat eskainiko luke; izan ere, tipologia hori modu berri bat da eskualdeko etxebizitzaren ekipamendua berritzeko ahalmena dinamizatzeko.

1.5. Lanerako plana

- Hautaketa prozesua
- Prestakuntza-jarduerak
- Jarduera profesionalen kontratazioa eta garapena

1.6. Adierazleak

Enplegu-kopurua	6
Proiektuaren aurrekontua	83.604,90 euro
Enpleguen tipologia	Elektrizitatea: 2 Igeltserotza: 4

2013ko Enplegu Planaren agente-koadroa

2013KO ENPLEGU PLANAREN AGINTE-KOADROA					
Jarduketa-lerroa	Adierazlea	Azterketaren maiztasuna	Lortzeko modua	Arduraduna	Aurreikusitako emaitzak
<p>1. ERRONKA: eskualdean sustatu daitezkeen kalitatezko enplegua sortzeko dinamika sortuberriak integratu</p> <p>1.1: Pasaiako Badia biziberritu nahi duten proiektuen sustapenean parte hartu</p> <p>Garraio egokituko monitore eta turismo egokituko gidari izateko prestakuntza-programa langabeentzat</p>					
Parte-hartzaileen hautaketa (emakume parte-hartzaileen kopurua)	Proiektuan parte hartzen duten pertsona-kopurua)	Urtean behin martxoa)	Prestakuntza-ekintzaren parte-hartzailearen fitxa	Oarsoaldea/Larrialdiak	10 pertsona (8 emakume)
Praktikak eta proiektua	Saldu daitezkeen turismo egokituko proiektu-kopurua	Urtean behin (urria)	Proiektuaren fitxa	Oarsoaldea/Larrialdiak	6 proiektu
<p>1. ERRONKA: eskualdean sustatu daitezkeen kalitatezko enplegua sortzeko dinamika sortuberriak integratu</p> <p>2.1: enpresa-ehunaren lankidetzat sustatu enpleguari lotutako proiektuetan</p> <p>Langabeak kontratatuzko laguntza-programak informazio eta komunikazio teknologien sektorean eta elikagaigintzan</p>					
Informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresen, elikagaigintzak o enpresen eta enpresa laguntzaileen zundaketa	Prospektatutako informazio eta komunikazio teknologien sektoreko enpresa, elikagaigintzak o enpresa eta enpresa laguntzaile kopurua	Urtean behin (hasieran)	Prospekzioaren fitxa	Oarsoaldea	100 enpresa
Kontratazioak o profilen definizioa	Kudeatutako enplegu-eskaintza kopurua	Urtean behin (hasieran)	Eskaintzaren formularioa	Oarsoaldea/enpresa	55 profil
Enplegu-eskaintzaren gestioa:	Kudeatutako enplegu-eskaintza	Urtean behin (hasieran)	Eskaintzaren formularioa	Oarsoaldea/enpresa	55 eskaintza

Hautagaiak atzematea eta aurkeztea	kopurua				
Pertsonen kontratazioa	Formalizatutak o kontratu-kopurua	Urtean behin (hasieran)	Kontratuak	Enpresa	46 kontratu
Kontratututak o pertsonen segimendua eta ebaluazioa	Pertsonako egindako segimendu kopurua	Bi hilean behin	Segimenduar en txostena	Oarsoaldea/enpresa	138 segimendu

1. ERRONKA: eskualdean sustatu daitezkeen kalitatezko enplegua sortzeko dinamika sortuberriak integratu

4.L: ondarearen berreskuratzea eta birgaitzea sustatu

San Juan Galeoiaren proiektuari lotutako prestakuntza-enplegu programa Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburuaren barruan

Prestakuntza teoriko-praktikoa	Trebatutako pertsona kopurua	Urtean behin (apirila)	Prestakuntza -ekintzaren parte-hartzailearen fitxa	Oarsoaldea/Albaola	11 pertsona trebatuta
Prestakuntza lanpostuan	Trebatutako pertsona kopurua	Urtean behin (iraila)	Prestakuntza ren parte-hartzailearen fitxa	Oarsoaldea/Albaola	11 pertsona trebatuta
Enpleguaren sorkuntza	Enplegatutako pertsona-kopurua	Urtean behin (urria)	Kontratazioaren fitxa	Oarsoaldea/Albaola	11 lanpostu

2. ERRONKA: berrikuntza, garapena, teknologia berriak eta jarduera sortuberriak bultzatu enplegua sortzeko

6. L: ekintzailatza sustatzeko estrategiak inplementatu jarduera sortuberritan

Herrilab proiektua, ekintzailatzarako eta gizarte-berrikuntzarako guneak

Komunitatearen sorkuntza	Komunitatea osatzen duten enpresa-kopurua	Urtean behin (apirila)	Hitzarmena	Enpresa txikiei laguntzeko zuzendaria	15 enpresek osatzen dute komunitatea
Negozio-ereduen diseinua	Emaitzen kontua eta finantziakoadroa	Urtean behin (abuztua)	IM-C01-AM-6 inprimakia Bideragarritasun-plana	Enpresa txikiei laguntzeko zuzendaria	12 negozio-plan
Proiektuen abiaraztea	Martxan jarritako enpresa-kopurua	Urtean behin (urria)	Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emateko agiria	Enpresa txikiei laguntzeko zuzendaria	12 enpresa 14 lanpostu

4. ERRONKA: enplegu-eskatzailleen enplegarritasuna hobetu

14. L: eskualdeko taldeei zuzendutako programak sustatu genero ikuspegia kontuan hartuta


Aiako Harria kontratazio-programa					
Enpleguaren sorkuntza	Enplegatutako pertsona-kopurua	Urtean behin (urria)	Kontratazioaren fitxa	Oarsoaldea	20 enplegu
<p>4. ERRONKA: enplegu-eskatzaileen enplegarritasuna hobetu</p> <p>14. L: eskualdeko taldeei zuzendutako programak sustatu genero ikuspegia kontuan hartuta</p> <p>Energia-eraginkortasunari buruzko prestakuntza eta enplegu programa</p>					
Prestakuntza teoriko-praktikoa	Trebatutako pertsona-kopurua	Urtean behin (apirila)	Prestakuntza-ekintzaren parte-hartzailearen fitxa	Oarsoaldea	6 pertsona trebatuta
Enpleguaren sorkuntza	Kontratatutako pertsona-kopurua	Urtean behin (urria)	Kontratazioaren fitxa	Oarsoaldea	6 enplegu

2013ko Enplegu Plana zifratan


AURREKONTU GUZTIRA

1.089.951,24 euro


FINANTZIAZIOAREN JATORRIA



AURREKONTUA PROIEKTUAREN TIPOLOGIAREN ARABERA




AURREKONTUA ETA FINANTZIAIOA PROIEKTUAREN ARABERA



ONURADUN-KOPURUA

107 LAGUN

PERTSONA-KOPURUA PROIEKTUEN TIPOLOGIAREN ARABERA



ENPLEGUEN TIPOLOGIA

Zurgindegia	8
Turismoko agentea	4
Elektrizitatea	2
Igeltserotza	4
Errementaritza	2
Pintura	1
Langile balioaniztuna	2
Basogintza	3
Lorezaintza	5
Parkeko zaindariak	2
Informatikoa	1
Marketina eta komunikazioa	1
Administrari laguntzailea	2
Teknologia berriak eta elikagaigintza. Profil teknikoak	24
Teknologia berriak eta elikagaigintza. Kualifikazio gutxiagoko profilak.	22
Ekintzaileak eta sortutako enpleguak	14
Mendeko pertsonentzako arreta eta/edo turismoa	10
GUZTIRA	107